

EGUNEKO EDUKIEN LABURPENA

Euskal Soziolinguistika Jardunaldia 2021

Immigrazioaren fenomenoak izan dugu aztergai gaurkoan. Ikusi dugun moduan, adierazten jarraitu beharreko fenomenoak izan dira honakoak, gero eta euskal herritar gehiagok baita jatorria atzerrian. Horregatik, garrantzitsua izango da euskararen biziberritze-prozesua gizarte garaikide honen ezaugarrietara egokitzea.

Errealitate anitz horren berri jaso nahi izan da aurtengo Euskal Soziolinguistika Jardunaldian, eta, horretarako, ikuspegi desberdinetatik landu dugu gaia gaurkoan. Horrela, amaierako dinamika baten bidez, entzuleen ikuspegiak ere idatzita gelditu da.

Gaiaren kokapena

Eguno errealtatea hobeto ezagutzeko, goizean, kokapen deskriptiboa eskaini zaigu. Alde batetik, datuekin deskribatu da migrazioen Euskal Herriko fenomenoak, eta, beste alde batetik, jatorri atzeritarreko herritarren hainbat bizipen eta jarrera ezagutu ahal izan ditugu.

Euskal Herrian, biztanleria gora doa migrazio-mugimenduengatik. Fenomeno geldiezina da, eta dinamismo handia du, hari lotutako aldaketak maiz gertatzen baitira. Halaber, fenomeno heterogenoa da, immigrazioko populazioa ez baita homogeneoa, ez jatorriz, ez egoeraz, ez beharrez, ez adinez, ez kulturaz, ezta hizkuntzaz ere.

Lurraldearen arabera, desberdintasunak topatu ditugu. Hego Euskal Herriko argazkian, esaterako, migratzaileen ezaugarri hauek antzeman dira: feminizazioa, gaztetasuna eta osagai zaurgarria (pobrezia-aukerak, langabezia-tasak...). Ipar Euskal Herriko migratzaileen artean, berriz, erretretari begira egon daitezkeen pertsona helduak nabarmendu behar dira (eros-ahalmen handikoak).

Tolerantziari buruzko datu interesgarriak eskaini dira, EAEko kasuan. Euskal gizartea aniztasuna onartzen ari dela diote Barometroko datuek. Gainera, COVID-19aren krisiak ez du tolerantzia-maila jaitsi. Halaber, euskararen garapenerako, immigrazioa ez da arazotzat hartzen.

Immigrazioaren fenomeno honek kultura eta mundu-ikuskerak anitzen topaleku bihurtzen du gure gizartea. Zaila da hizkuntza-aniztasun hori kuantifikatzen egungo ikerketekin. Izan ere, ez dago jatorri atzeritarreko biztanleek ezagutzen dituzten edota erabiltzen dituzten hizkuntzak zeintzuk diren jasotzeko protokolo zehatzik. Herritar hauen jatorri-estatuetakoa hizkuntza ofizialak eta gutxituak kontuan hartuz, ordea, gure lurraldeetan eta herrietan hizkuntza-kopuru altu baten presentzia egon daitezkeela aurreikus daiteke. Gipuzkoan, esaterako, 120 hizkuntza baino gehiago hitz egin daitezkeela aipatu da.

Migranteak euskarara hurbiltzeko planak egiteko, euskaldunen kontzentrazio-mailari erreparatzea proposatu da. Gune geografiko bakoitzeko baldintza soziolinguistikoen eta jatorriaren arabeko plan konkretuak diseinatu beharrez jardun gara.

Bestalde, jatorri atzerritarra duten Gipuzkoako hainbat herritarren ahotsa ekarri da saiora, eta sozializazio positiboa izan dutenen eta sozializazio zaila izan dutenen bizipenak eta jarrerak aurkeztu dira. Kasu horretan ondorioztatu da etorkinen adinaren arabeko praktika berezituak diseinatzea beharrezkoa dela gizarteratze-bidea samurrago izan dadin. Eta, horrekin batera, hizkuntzaren ikasketa-prozesuak formalizatzea, horretarako medioak erraztuz. Era berean, urrats bat emateko proposamena egin da, euskarak balio afektibotik harago, alegia, beharrezkotasunerako jauzia nolabait emanez.

Eskoletako errealitatea

Testuinguru honetan guztian, hezkuntza-komunitateari ere erreparatu diogu. Esparru honetan urratsak ematen ari gara modu sistematiko eta bateratuan eskolatik erantzun bat eman ahal izateko, eta horren adibide dira dagoeneko sortu diren edo sortzen ari diren programak. Bitarteko horiek lagunduko dute etorri berrien egokitzapenean eta integrazioan, baita ikasleen emozioen kudeaketan ere edota hizkuntza eta curriculumeko edukiak, biak ala biak, uztartzeko lanean.

Zeregin horretan baina, irakasle eta hezkuntza-komunitateko kideen prestakuntza ibilbideak garrantzi handia du. Gaurko saioan hain justu ere, hizkuntzaren didaktikaren arloan gehiago murgiltzeko beharra azaleratu da, errepikatu zaigun mezua izan da azken hau.

Aldi berean, eredugarriak diren esperientziak plazaratu dira gaurko saioan, eta ekimen positibo eta adierazgarri diren testuinguruetatik ikasteko aukerak beharra, korapiloak elkarrekin laxatu nahi baldin baditugu. Dena den, eskola barrutik bakarrik erantzun ezin den gaia dugu honakoa, aisialdiaren eremutik ere berrikusi beharreko kezka da, aisialdian ere integrazio horren aldeko lana bermatuz.

Honetan guztian, identitate pluralaren auzia azaleratu zaigu, benetan, patxadaz aztertu beharreko puntu mamitsua. Askotariko pertenezko sentimenduak dituzte egun herritarrek, zeresanik ez bigarren belaunaldiko biztanleek. Hori dela eta, jatorri atzerritarreko herritarrak "bertakoak" direnaren ideia zabaltzeko deia egin da; xedea ez baita izan behar pertenezko bat eta bestearen artean aukeratzea. Lan honetan ikastetxeek paper garrantzitsua joko dezakete.

Komunitate osoaren ardura da haur hauen integrazioa. Udaletako beste gizarte zerbitzuak ere beharrezkoak dira zeregin horretan. Guztiak batera lanean jartzea funtsezkoa da. Eragile horiei erreparatu zaie hurrengo mahai-inguruan.

Herri eta komunitate mailako ikuspegia

Udalek eta erakunde publikoek egin dezaketen lanaz gogoeta egiteko tarteak egon da saio honetan. Ziurrenik, baliabideak eskaintzeaz gain, jatorri atzerritarreko herritarrekin landu behar da zein behar dituzten, modu hurbilean, eurekin. Sentsibilizazio-kanpainaz harago, alde bikoitasuna landu beharra dago, hurbiltzea eta

elkar ezagutzea, lankidetzat sustatzea eta aliantzak lantzea. Horrela ados litezke harrera linguistikoko egokiak.

Halaber, EAEko EABI inkestako datuen azterketak beste kontu interesgarri batzuk ere gogorarazi dizkigu:

- “Jatorri atzerritarreko biztanleek ez dakite euskararik” mitoa erlatibizatu beharra; izan ere, badago euskara ezagutzen duen masa kritiko bat.
- Euskara integratziorako tresna egokia izan daitekeela diote datuek, hizkuntza ezagutzen duten jatorri atzerritarreko herritarrek parte hartze sozial zabalagoa egiten dutelako.

Kataluniako ikasgaiak

Bazkalostean, berriz, Kataluniako begirada ekarri digute, eta, besteak beste, estaturik gabeko nazioen aukerez mintzatu zaizkigu: berritzeko, eraikitze eta etengabe hausnartzeko gaitasuna eduki dezakegu, politikoki antolatze beste moduak pentsatzeko eta esperimendatzeko.

Halaber, pertsonak erdigunean jartzearen garrantzia azpimarratu da. Jakin behar dugu jatorri atzerritarreko herrikideei zer suposatzen dien hizkuntza gutxitua barneratzeak eta erabiltzeak. Horretan jarri behar da fokua, eta, horretarako, beraiekin egon beharra dago.

Harremantzeko guneen beharra sumatzen da. Aukerak bilatu eta sortu behar dira, jendea elkarren artean harremanetan jartzeko. Betiere, kontziente izanda, elkarrekin diseinatu ditzakegun ekimenak ez direla betirako izango, egoeren eta egiteko moduen arabera egokitu beharko baititugu.

Eskuartearen ditugun erronkak

Amaierako mahai-inguruan, aurrera begira jarri gara, aukerak eta proposamenak bilatuz. Eta hainbat erronka jarri dira mahai gainean, besteak beste...:

- Harrera-plan koordinatuen eta eraginkorren beharra. Eta horra iristeko prozesuak parte hartzaileak izatea.
- Eskoletako segregazioa saihestearen garrantzia eta horri begirako erabaki praktikoak hartzea.
- Gizarte zibilak aktiboki parte-hartzea integrazio-ekimenetan eta arrazismoaren salaketan.
- Dimentsio inklusiboa kontuan hartzea, alegia, euskara hizkuntza komuna bezala agerraraztea, ez soilik bertako hizkuntza moduan.
- Kulturartekotasunaren praktika elkarrekin pentsatzeko beharra, elkarri entzunez eta elkarrekin antolatuz.

Parte-hartzaileen ekarpenak

EUSKAL SOZIOLINGUISTIKA JARDUNALDIA

2021eko azaroaren 11
Baluarte, Iruñea

Mentimeter



46